

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### Laudioko Udalaren 2026. urterako enplegu publikoaren eskaintzaren onarpena

Alkatetzaren 2026ko otsailaren 24ko 247 zenbakiko Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

**LEHENENGOA.** Alkate-udalburuak bereganatzea enplegu publikoaren eskaintza onesteko eskumena, interes publikoko arrazoiengatik, prozedura ez luzatzeko eta arintzeko, eta espedientean dagoen memorian, jasota dauden lanpostuak betetzeko beharrari berehalako erantzuna emateko, guzti hori administrazio publikoen araubide juridikoaren 40/2015 legearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**BIGARRENA.** Onestea 2026ko enplegu publikoaren eskaintza, Laudioko Udalaren zerbitzura dauden funtzionarioen lanpostu hauei dagokienez:

#### TXANDA IREKIA:

– Udaltzain ofizial ondokoaren 2 plaza (ikuskapen-eskala), 8002 eta 8003 kodeak dituztenak, administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezietako azpieskalan, udaltzaingoko klasean, C1 taldean, derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin.

Lanpostu hauei dagozkie:

POSTUA	IZENA	PROFIL	DERRIGORTASUN-DATA
1042	Udaltzain ofizial ondokoa	3	2019/05/31
1043	Udaltzain ofizial ondokoa	3	2019/05/31

– Udaltzain agente lehenaren 1 plaza (oinarrizko eskala), 8007 kodea duena, administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezietako azpieskalan, udaltzaingoko klasean, C1 taldean, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Lanpostu honi dagokio:

POSTUA	IZENA	PROFIL	DERRIGORTASUN-DATA
1030	Udaltzain agente lehena	2	2020/02/24

– Udaltzain agentearen 5 plaza (oinarrizko eskala), 8023, 8013, 8015, 8027 eta 8017 kodeak dituztenak, administrazio bereziko eskalan, zerbitzu berezietako azpieskalan, udaltzaingoko klasean, C1 taldean, derrigorrezko 2. hizkuntza-eskakizunarekin.

Lanpostu hauei dagozkie:

POSTUA	IZENA	PROFIL	DERRIGORTASUN-DATA
1016	Udaltzain agentea	2	2020/02/24
1021	Udaltzain agentea	2	1998/12/31
1031	Udaltzain agentea	2	2004/05/31
1033	Udaltzain agentea	2	2004/05/31
1036	Udaltzain agentea	2	2004/05/31

**HIRUGARRENA.** Deitutako plaza-kopurua handitu ahalko da, hautaketa-prozesuak iraun artean edozein arrazoiengatik sortutako lanpostu hutsen arabera. Kopuru handitze hori ALHAOn argitaratuko da alkate-udalburuaren dekretu bidez, eta derrigortasun-data ezarrita daukaten plaza-kopurua adieraziko da.

**LAUGARRENA.** Eskainitako plaza batzuk desgaitasuna duten pertsonentzako txandarako gordeko dira. Kasuan kasuko oinarri espezifikoetan zehaztuko da zeintzuk diren plaza horiek.

**BOSGARRENA.** Ebazpen honetan jasotakoaz gain langile berriak sartzea planteatzen bada, enplegu publikoaren eskaintza gehigarri bat onetsi ahalko da, hala behar duten administrazio-eremuetan.

**SEIGARRENA.** Enplegu publikoaren eskaintza hau argitaratzea ALHAOn eta Laudioko Udalaren egoitza elektronikoan.

Laudio, 2026ko otsailaren 26a

*Alkate-udalburua*

*AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ*